



## ARAUTEGIA

### JUDO 2024

Eusko Jaurlaritzaren Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritzak EUSKADIKO XLI. ESKOLARTEKO KIROL JOKOEN ekitaldia antolatuko du, Euskadiko Judo Federazioarekin lankidetzan, 2024ko apirilaren 14ean Alzaga Udal Kiroldegian, Erandion (Bizkaia). Hauxe duzue jokoaren araudia:

#### • **A. JOKATZEKO MODUA:**

Kategoriak:

- Infantilak: 2010-2011ean jaiotako neska-mutilak. Araba, Bizkaia, eta Gipuzkoa.

Partaide guztien eskola lizentziak aurkeztu beharko dira, edo bestela, parte-hartzaileen triptikoa, dagokion Foru Aldundiaren zigilu eta sinadurarekin. Horiek aurkezten ez badira, NAN edo pasaporte originala aurkeztu beharko da aktan inskribatu ahal izateko, bestela, ezin izango du ekintzan parte hartu.

#### • **B. SELEKZIOEN OSAERA:**

Pisu bakoitzeko 4 judoka eta entrenatzaile bana izango dituzte nesken eta mutilen selekziotan.

Lurrealde bakoitzak 2 selekzio izango ditu, 1 nesketan eta 1 mutiletan, hau da, lurrealde bakoitzak 32 mutilekin eta 32 neskekin parte hartu ahal izango du.

Lurrealde bakoitzeko txapelduna, txapeldunordea eta hirugarren postuan sailkatutako bi kirolariak bertan izango dira. Ezinbestean joaterik izango ez balute, justifikatu egin beharko lukete bertaratu ezina.

Pisu mailaren kirolariak falta direla eta, lurrealderen batek 32 mutilen eta 32 nesken postuak betetzerik izango ez balu, ezingo ditu eskola ume gehiago aurkeztu gainerako pisuetan.



## EUSKADIKO XLI. ESKOLARTEKO KIROL JOKOAK XLI JUEGOS DEPORTIVOS ESCOLARES DE EUSKADI



Aurreko urtean lehen postua lortutako judokak txapelketan parte hartzera gonbidatuko dira, betiere eskola kiroleko infantil mailakoak izaten jarraitzen badute.

Gonbidatuak ez dira aintzat hartuko ezarritako kupoa betetzerako orduan, duten pisuan parte hartu ahal izango dute eta lurraldea ordezkatzeko duten gainerako judokekin batera izango da izen-ematea. Gonbidapenak izen-abizenekin egingo dira.

Pisuak eta kategoriak:

- Infantil neskek: - 36 -40 -44 -48 -52 -57 -63 eta + 63kg
- Infantil mutilak: -38 -42 -46 -50 -55 -60 -66 eta + 66kg

### • D. ARAU OROKORRAK:

Borrokak hiru minutukoak izango dira.

Parte hartzeko egiaztatu beharreko gutxieneko maila gerriko berdea da. Txapelketan judogi zuriarekin soilik parte hartu ahal izango da.

Euskadiko federazioak epaileak izendatuko ditu, lurralde bakoitzetik lau, eta hauek guztiak epaile zuzendariak koordinatuko ditu.

Banakako lehiaketan kanporaketak bigarren aukera gisa edota liga gisa jokatuko dira. Judoka kopuruaren arabera erabakiko da kanporaketa edo liga jokatuko.

Hiru lehiaketa eremu izango dira.

Kantxan, tatami bakoitzeko bi teknikari baino ez dira onartuko.

### • E. ZOZKETA:

Izen emateak Euskadiko Judo Federaziora bidaliko dira 2024ko apirilaren 8ko 14:00ak baino lehen.

Zozketa txapelketaren egunean pisaketa bukatu ondoren egingo da, ordenagailuko programa baten bidez.



Izen emateetan aldaketak egiteko azken eguna 2024ko apirilaren 11ko 12:00tan izango da.

• **F. PISU HARTZEA:**

Txapelketa hasi baino lehenagoko orduan egingo da pisu hartzea; lehen ordu laurdenean pisu-hartze estraofiziala eta bigarren ordu-erdian pisu-hartze ofiziala egingo da.

Lehenengo pisatzean pisu egokia ematen duen kirolariari ontzat emango zaio pisua.

Pisu hartze ofiziala hastean, kirolaria behin bakarrik igoko da balantzara eta bertan ematen duen pisua izango da erabiliko dena.

Txapelketan inskribaturik dagoen pisua ematen ez duen kirolaria txapelketatik kanpo geratuko da.

Partaideak pisaketa unean dagokien Foru Aldundiko eskola kiroleko txartela aurkeztu beharko dute.

Txapelketa ordutegia modu onean eraman ahal izateko, epaileak 9:30etarako txapelketa gunean egon behar dira.

• **G. KIROL SARIAK:**

Ondorengo sariak emango dira:

Txapelketaren banakako sailkapena:

Domina bana lehenengoari, bigarrenari eta hirugarren sailkatzen diren biei.

• **H. EZBEHARREN AURREAN:**

Lesio edo ezbeharririk sortu ezkeri nahi eta nahi ez antolakuntzak kirol eremuan izango duen arduradunarengana jo beharko da. Honek eman beharreko gainontzeko pausuak bideratuko ditu.

• **I. AZKEN OHARRA:**



**EUSKADIKO XLI. ESKOLARTEKO KIROL JOKOAK**  
XLI JUEGOS DEPORTIVOS ESCOLARES DE EUSKADI



Arautegi honetan azaltzen ez diren kontu guztietarako, ondorengo testuak hartuko dira kontuan:

- a) 14/ 1998 LEGEA, Ekainaren 11koa, Euskadiko kirolarena.
- b) 125/2008 DEKRETUA, Uztailaren 1ekoa, Eskola Kirolarena.
- c) 391/2013 DEKRETUA, uztailaren 23koa, eskola-kiroleko lehiaketen diziplina-araubideari buruzkoa.
- d) AGINDUA, 2024ko urtarrilaren 16koa, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarena, 2024ko Euskadiko Eskolarteko Kirol Jokoen XLI. edizioaren deialdia egiteko dena.
- e) EBAZPENA, 2024ko urtarrilaren 25ekoa, Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren zuzendariarena, 2024ko Euskadiko Eskolarteko Kirol Jokoen XLI edizioko lehiaketako epaile bakarra izendatzen duena.
- f) Judoko eta EK-ko Euskal Federazioaren Arautegian erabakitakoa.

Euskara eta gaztelaniazko araudien interpretazioetan ezberdintasunak izan ezkerro, jatorrizko hizkuntza lehentasuna izango du.